

Intxaurrondo

Txiklea bezain malguak

Joan den urtean, break-dance-a gustuko duten auzoko lau gaztek Intxaurbreak taldea sortu zuten. Lehiaketetan parte hartzen hasi dira eta udan ikastaroak egingo dituzte, gaztetxoei break-dance-a irakasteko.

Gladys Villalba

Intxaurdantza elkarrekin dantza eta antzerki ikastaroak eta beste zenbait ekitaldi antolatu ohi ditu auzoan. Ekimen horien haritik, iaz haurrentzat egindako festa batean, Diego Picadilli gazteak break-dance erakustaldia egin zuen. Saioak gaztetxoaren artean izandako harrera ona ikusi-


ta, Diegok eta beste hiru lagunek Intxaurbreak taldea sortu zuten.

Taldekideek, berain bidea egiteaz gain, break-dance-a ahalik eta donostiar gehienei ezagutaraztea dute helburu. Horregatik, udan, ikastaroak antolatuko dituzte Ipar Haizea elkarrearen egoitzan.

Taldeko kideek break-dan-

ce-a gurean gora doala diote: *"Ez dago talde askorik, dantzariak beren kabuz aritu ohi direlako. Hala ere, jaialdietan sumatzen da gero eta neska mutil gehiago ari direla break-dance-an"*.

Intxaurbreak-eko kideek joan den hilean parte hartu zuen lehen aldiz lehiaketa batean, Elorrioren. Eta, uztailean, Barzelonan egitekoa den txapelketan ariko dira.



Zorionak Urtzi!


Larrotxeneko "Kamera Atzean" egitasmoa kide Urtzi Alfaroren "Lagunak" euskarazko lana Boloniako Kids for Kids bideo jaialdian pantailaratuko dute, ekaina bukatu. Hainbat herritako gazte txoek egindako 300dik gora lan aurkeztu dira jaialdira eta epaimahaiak 25 besterik ez ditu aukeratu.




Bi norabideko errepidea?

Mons pasealekuaren hasiera, kiroldegi pareko zatia, bi norabidekoa da. Dena dela, argazkian ikus daitekeenez, gidari askok kiroldegi ondoan uzten dute autoa. Hori dela eta, Mons pasealekuko goialdera doazenez kontrako norabidean sartu behar dute



 **uda barnetegiak**
lesaka. leitza. zubieta

Errioxa 945 60 10 87	Iruñea 948 22 22 46	
Lesaka 948 63 77 96	Gasteiz 945 15 43 41	

NARRIKA
taberna

Narrika 16
Tel.: 943 427327

Argitalpen honen edizioan lankide:

 **kutxa**
gizarte ekintza